

IRAKASKUNTZA-GIDA

2021/22

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25938 - Komunitaterako Gizarte Zerbitzuak

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai hau B Moduluan kokatzen da: Gizarte Langintzaren testuinguru instituzionala. Gizarte zerbitzuen oinarriak irakasgaiaren jarraipena da eta hirugarren mailako bi irakasgaiekin harreman zuzena du: Gizarte zerbitzu espezializatuak eta Gizarte Politika.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**AZALPEN LABURRA (ANECA):**

- EAEko gaur egungo gizarte-zerbitzuen gizarte-babes sistema.
- Gizarte zerbitzuen lehenengo arreta maila: ezaugarriak, eskumen-maila, prestazio-motak...
- Gizarte-bazterketaren aurkako politikak EAEn.
- Prestazio ekonomikoak, arreta berezia eskaini prestazio ez kontributiboei.
- Gizarte zerbitzuen lehenengo arreta mailako zerbitzu nagusiak: informazio zerbitzuak, balorazioa eta orientazioa, etxeko etxeko laguntza zerbitzua, larrialdietarako gizarte-zerbitzua.
- Komunitatearen inplikazioa gizarte-zerbitzu eta gizarte-ongizatean.

KONPETENTZIAK:

- Gaur egungo gizarte-arazo, egoera eta errealitate ezberdinen inguruko ezagutza, ulertze eta hausnarketa kritikoa sakondu. Honen bidez komunitate, erakunde, talde eta pertsonekin lan egin ahal izateko gaitasunak landu (Zeharkakoa).
- Esku-hartze profesionalerako gizarte-baliabideen eta hauen marko juridikoa zein garrantzitsua den azpimarratu, honen bidez, eta hausnarketa kritikoa ahalbidetuz, enpresa, erakunde publiko eta hirugarren sektoreko antolaketa eta kudeaketa hobetu ahal izateko.
- Jarduera profesionalerako beharrezkoak diren trebetasunak landu: hausnarketa kritikoa egiteko gaitasuna, komunikazioa, harremanak, talde-lana, etab. (zeharkakoa).
- Komunitaterako gizarte-zerbitzuen antolaketa-egitura eta funtzioak ezagutu.
- Lehen arretako gizarte zerbitzuetan gizarte langileek duten funtzioak eta eskuhartze maila zehaztu.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

- 1.Egungo gizarte babes sistema
- 2.Gizarte zerbitzuen babes sistema
- 3.Gizarte zerbitzuen euskal babes sistema: Komunitaterako gizarte zerbitzuak eta gizarte zerbitzu espezializatuak
- 4.Lehen arreta maila Gizarte Zerbitzuen euskal babes sisteman
- 5.Diru-sarrerak bermatzeko sistema
- 6.EAEko lehen arreta mailako Gizarte Zerbitzuen analisi kritikoa

METODOLOGIA

Klase teorikoak: Klase hauetan edukin teoriko nagusienak aurkeztuko dira. Era berean, ikaslearen Gizarte Zerbitzuen Euskal Babes Sistemaren ikuspegi kritikoa garatzeko beharrezkoak diren tresnak eskeiniko dira.

Klase praktikoak: Saio hauek ikasleen ekarpenen arabera egituratuko dira. Hortaz, ikasleen partehartze aktiboa oso garrantzitsua izango da.

Lan autonomoa: Kasu honetan talde zein norbanakoek egindako lanak izango dira. Momentu oro, irakaslearen etengabeko gainbegiraketa egongo da.

Tutoretzak: Irakasleak eduki teoriko zein praktikoen inguruko zalantzak argituko ditu.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 70
- Banakako lanak % 15
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 15

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ETENGABEKO EBALUAZIO-SISTEMA

Klaseetara etortzea ezinbestekoa da.

Azken proba notaren %70a

Banakako eta taldeko lanak %30a

Ikasgaia gainditzeko proba eta lanak gainditzeko derrigorrezkoa da.

AZKEN EBALUAZIOA

Azken proba notaren %100a da, irakaskuntza gidan jasotako derrigorrezko materialetatik abiatuta.

ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEKO PROZEDURA

Ikasleak irakasgaiaren irakasleari idatziz aurkeztu beharko dio. Horretarako, bederatzi asteko epea izango du, lauhilekoa hasi ondoren.

OHIKO DEIALDIARI UKO EGITEKO PROZEDURA ETENGABEKO EBALUAZIOAN

Ikasleak irakasgaiaren irakasleari idatziz aurkeztu beharko dio. Horretarako, irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino hilabete bat lehenago egin beharko du.

AZKEN EBALUAZIOARI UKO EGITEKO PROZEDURA

Azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

BESTELAKOAK:

- Ebaluazio probetan ikasleek debekatuta dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere.
- Jokabide makur edo iruzurrezkoak joko dira ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan akademikoak egitean eta aurkeztean hurrengoak: lanak plagiatzea, hau da, inoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdirako zehaztutako irizpide berberak mantenduko dira, bai etengabeko ebaluazio-sistamarako eta baita azken ebaluaketa sistamarako ezarritakoak ere.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren araudi erregulatuak, bereziki:

-12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

-EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019 eta bere ebaluazioa (2021).

-EAEko Gizarte Zerbitzuen mapa 2015.

-185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

-64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, EAEko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna arautzen duena.

-353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.

-385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena.

-152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Balora tresnaren eguneraketa onesten duena.

-18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa (eta bere aldaketak: 4/2011 Legea).

-147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzkoa.

-2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa.

-4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa (eta bere aldaketak: 16/2017 Dekretua eta 85/2018 Dekretua).

-20/2020 Errege Dekretu-legea, maiatzaren 29koa, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duena.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

ARARTEKO (2016): Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Ararteko: Vitoria-Gasteiz.

FANTOVA, Fernando (2008): Sistemas públicos de servicios sociales. DEUSTU: Bilbo.

ZABALO, Julen eta MORENO, Gorka: Gizarte zerbitzuen oinarriak. UPV/EHU: Bilbo.

Gehiago sakontzeko bibliografia

ARRIETA, Felix (2019). El archipiélago del bienestar. Los servicios sociales en el País Vasco. Madrid: Catarata.

ANAUT-BRAVO, Sagrario (2019): El sistema de servicios sociales en España. Navarra: Aranzadi.

CORTINA, Adela (2017). Aporofobia, el rechazo al pobre. Paidós.

FANTOVA, Fernando (2014). Diseño de políticas sociales. Madrid: CCS.

GARCÍA, M. (Coord.) (2016). Guía para incorporar el enfoque de género en la planificación de políticas sociales. Granada: Escuela Andaluza de Salud Pública.

MESA, Sara (2019). Silencio administrativo. Barcelona: Anagrama.

RAVENTÓS, Daniel (2021). La renta básica ¿por qué y para qué?. Madrid: Catarata.

SANTOS, Joaquín (2012). El cuarto pilar. Un nuevo relato para los servicios sociales. Madrid: Consejo General del Trabajo Social y Paraninfo.

ZUBILLAGA-HERRAN, Nerea eta BERASALUZE, Ainhoa (2021). Gizarte zerbitzuak eta gizarte langintza: zein da zein?. Zerbitzuan, 75.

Aldizkariak

Zerbitzuan

Documentación Social

Revista Española del Tercer Sector

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.bizkaia.net/>

<http://www.gizartegaiak.ej-gv.net/>

<http://www.vitoria-gasteiz.org/>

<http://www.bizkaia.net/info/boletin/>

<http://www.sis.net>

OHARRAK

Lanetan nahiz azterketan, idatzizko komunikazioan zuzentasun edo akats gramatikalak badaude, honek suspentsoa ekar dezake.

COVID-19 dela eta ebaluaketa modu ez presentzian egitea tokatuko balitz, ebaluazio bide jarraia zein ez jarraia burutzen ari diren ikasleei azterketa eGela bidez jarriko zaie, ohiko zein ez ohiko deialdirako aurreikusitako egun eta ordu berdinean. Frogak izaera teoriko-praktikoa izango du.